

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

111/2020 Foru Agindua, ekainaren 1ekoa. Onestea Asparreneko hiri antolamendurako plan orokorraren 2.1.1.4 artikulua idazkeran antzemandako huts materialen zuzenketa

Lehenengoa. Asparreneko Udalak, Arabako Foru Aldundiko Erregistro Orokorrean 2020ko martxoaren 12ko sarrera data duen idazkiaren bidez, 2020ko martxoaren 5eko ohiko bilkuran Udalbatzak hartutako erabakiari buruz idazkari-kontuhartzaileak egindako ziurtagiria bidali du. Bilkura horretan aho batez erabaki zen Asparreneko hiri antolamendurako plan orokorraren 2.1.1.4 artikuluan antzemandako bi huts materialak zuzentzea.

Bigarrena. Espedientean jasota dago Gerardo Molpeceres jaunaren txostena, alegia, Asparreneko HAPO idatzi zuen arkitektoarena. Molpeceres jaunak adierazi du hutsak antzeman dituela zuzkidura jarduketak arautzen dituen 2.1.1.4 artikulua idazkeran, eta hau jakinarazi du: "Arazoa IE koefizientearen formulaz dago. Izan ere, hirigintza eraikigarritasunaren gehikuntza neurtzen du koefiziente horrek, eta gehikuntza bererako berdeguneen zuzkidura bera exijitu beharko lukeen arren, zigorrak ezartzen ditu gehikuntza lurzati eraikian egiten denean, lurzati hutsean egin beharrean. (...) Antzemandako huts material horren ondorioz, zuzkidura jarduketetan, aurrez eraikita dauden eta soberako eraikigarritasuna duten lurzatiatarako aurrekusi diren berdeguneen lagapenak matematikoki zentzugabeak dira, eta ez datoz bat 123/2012 Dekretuaren 6. artikuluaekin... Beraz, huts materiala dago 1.1.1.5 artikuluko 4. apartatuan – Hiri antolamendurako plan orokor honetako edozein zehaztapenen eta lurzoruaren erabilera edo eraikuntza jarduerari zuzenean aplikatu dakiekeen legezko edo araubidezko edozein xedapenen artean kontraesanen bat dagoenean, azken horretan adierazitakoa nagusituko da–"

HAPOren 1.1.1.5 artikuluko 3. apartatua aplikatzeko, udal organo eskudunari proposatu dio zuzendu dadila 2.1.1.4 artikuluko huts materiala, era honetan:

"5. apartatuan, formula hau: $IE=(ef-ei) / em1$.

7. apartatuan, formula eta adierazpen hauek:

c.1) $SC=0,15 \times Sp \times (ef-em0) / em1$.

c.2) $SC=0,15 \times Sp \times (ef-ei) / em1$.

Formula horretan aurreko parametroez gain beste hauek ere erabiltzen dira:

em0 (m²t): arau subsidiarioek edo aurreko planak lurzatiari egokitutako hirigintza eraikigarritasun handiena, egikartzeko epeak amaitu gabe."

Molpeceres jaunak eranskin bat gehitu dio bere txosten teknikoari, lehen azaldutakoa justifikatzeko. Formuletak kalkulu zehatzak jasotzen ditu eranskinak.

Hirugarrena. Halaber, 2020ko otsailaren 20an egindako jakinarazpenean, Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzuak adierazi zuen ados zegoela txosten horrekin, eta baieztatu zuen huts bat dagoela zuzkidura jarduketan lagapenak kalkulatzeko formulaz.

Laugarrena. Asparreneko Udaleko idazkariak bere txostenean dioenez, eta HAPO idatzi zuen arkitektoak adierazi bezala, huts nabarmena dago IE koefizientearen formulaz. Izan ere, hirigintza eraikigarritasunaren gehikuntza neurtzen du koefiziente horrek, eta gehikuntza bererako berdeguneen zuzkidura bera exijitu beharko lukeen arren, zigorrak ezartzen ditu gehikuntza lurzati eraikian egiten denean, lurzati hutsean egin beharrean. Idazkariak azaldu

du huts materiala egin dela HAPOn 2.1.1.4 artikuluan eta bidezkoa dela huts hori zuzentzea, 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 109. artikuluan ezarritakoari jarraituz, eta bidezkoa dela Udalbatzak zuzenketa onestea eta espedientea Foru Aldundira bidaltzea, behin betiko onets dezan.

Bosgarrena. Ingurumen eta Hirigintza sailburuaren urriaren 25eko 262/2016 Foru Aginduaren bitartez, behin betiko onetsi zen Asparrena udalerriko Hiri Antolamendurako Plan Orokorra, baldintza batzuekin eta espedientea partzialki etenda (ALHAO, 143. zenbakia, 2016ko abenduaren 21ekoa). 2017ko abuztuaren 28ko 249/2017 Foru Aginduaren bidez, betetzat eman ziren urriaren 25eko 262/2016 Foru Aginduan ezarritako baldintzak; hortaz, behin betiko onetsi zen Asparreneko hiri antolamendurako plan orokorraren testu bateginaren espedientea, eta ebazpen hori argitaratu zen hirigintzako araudiarekin batera (ALHAO, 137.zenbakia, 2017ko azaroaren 29koa).

OINARRI JURIDIKOAK

Aplikatu beharrekoa da urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 109.2 artikuluan dioena: "Herri-administrazioek, beren kabuz edo interesdunek eskaturik, edozein unetan zuzendu ditzakete beren egintzetako huts materialak, egitezkoak edo aritmetikoak."

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onestea Asparreneko hiri antolamendurako plan orokorraren 2.1.1.4 artikulua-
ren idazkeran antzemandako huts materialen zuzenketa, bat etorritz 2020ko martxoaren 5ean Udalbatzak hartutako erabakiarekin, zeina Arabako Foru Aldundiari jakinarazi baitzaio dagozkion ondorioak izan ditzan.

Horrenbestez, 2.1.1.4 artikuluko 5. apartatuan, hau dioen lekuan:

"IE (ud): planak zuzkidura jakin bakoitzean baimendutako hirigintza eraikigarritasun osoaren aldean hirigintza eraikigarritasunaren handitzea neurtzen duen koefizientea, zero eta bat bitartekoa. Adierazpen honen bitartez kalkulatzen da: $IE = (ef - ei) / (em1 - ei)$ "; hau esan behar du:

"IE (ud): planak zuzkidura jakin bakoitzean baimendutako hirigintza eraikigarritasun osoaren aldean hirigintza eraikigarritasunaren handitzea neurtzen duen koefizientea, zero eta bat bitartekoa. Adierazpen honen bitartez kalkulatzen da: $IE = (ef - ei) / em1$."

7 c) apartatuan, hau dioen lekuan:

"Epeak amaitu ez badira eta zuzkiduraren ondoko azken eraikigarritasuna (ef) arau subsidiarioek edo aurreko planak lurzatiari egokitutako eraikigarritasun handiena (em0) baino handiagoa bada, balio hauetatik txikiena hartuko da:

$$c.1) SC = 0,15 \times Sp \times (ef - em0) / (em1 - em0).$$

$$c.2) SC = 0,15 \times Sp \times (ef - ei) / (em1 - em0).$$

Formula horretan aurreko parametroez gain beste hauek ere erabiltzen dira:

em0 (m²t): arau subsidiarioek edo aurreko planak EUri egokitutako hirigintza eraikigarritasun handiena, egikartzeko epeak amaitu gabe," hau esan behar du:

"Epeak amaitu ez badira eta zuzkiduraren ondoko azken eraikigarritasuna (ef) arau subsidiarioek edo aurreko planak lurzatiari egokitutako eraikigarritasun handiena (em0) baino handiagoa bada, balio hauetatik txikiena hartuko da:

$$c.1) SC = 0,15 \times Sp \times (ef - em0) / em1.$$

$$c.2) SC = 0,15 \times Sp \times (ef - ei) / em1.$$

Formula horretan aurreko parametroez gain beste hauek ere erabiltzen dira:

em0 (m²t): arau subsidiarioek edo aurreko planak lurzatiari egokitutako hirigintza eraikigarritasun handiena, egikaritzeko epeak amaitu gabe.”

Bigarrena. Plan orokorraren zuzenketa Arabako Hirigintza Planeamenduaren Administrazio Erregistroan sartzea.

Hirugarrena. Agintzea ebazpen hau ALHAOn argitara dadila.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan, eta horretarako, bi hilabeteko epea izango da, jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 1a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO